

## PROIEKTUAREN AURKEZPENA:

Guk proposatutako proiektua emakumeen segurtasuna sustatzeko sortu dugu, eraso sexisten eta bortxaketen aurka. Zerbitzu bat da eskeintzen duguna, ostiral eta larunbatetan emakumeak etxerako bidean laguntzeaz arduratuko dena.

Hasiera batean, 12 boluntario egongo dira egun bakoitzeko, 4 oinez eta 8 bizikletaz; binaka egingo dute boluntaritza eta zerbitzua gaueko 23:00tatik goizeko 05:30etara izango da.

Gure proiektua Lasarte-Oriari begira egin dugu, hau da, gure zerbitzuaren datuak gure udalerriri zuzenduak dira. Bizikletan dijoaztenak 4 eremutan banatuko dira eta boluntaritza oinez egingo dutenak Okendo plazatik, erdialdetik, aterako dira auzoetarantz.